



Euskararen kutxa

Ebazten dut

Pello Esnal

Sarritan sortzen zaizkigu zalantzak, bai hizketan eta bai idazten ari garela, baina ez dira denak berdinak izaten. Artikulu labur honetan, euskarazko zalantza esanguratsu batean jarriko dugu arreta; alegia, zer formula erabili lege, dekretu, agindu, ebazpen eta horrelako idatzietan: “xedaTU dut”, “ebaTZI dut” eta antzekoak ala “xedaTZEN dut”, “ebazTEN dut” eta antzekoak?

Txikikeria dirudi, baina hizkuntzaren funtsa-funtsari dagokio. Auzia ebazteko, gramatikara baino barrurago jo behar dugu: hizkuntzak gauzatzen duen ekintza komunikatibora. Eta hain da berezia ekintza komunikatibo hori, non arreta eta eginahala areagotzea eskatzen digun, atzeman nahi badugu.

Hain zuzen, azken batean, horixe ari zaigu eskatzen HEOK: arreta eta eginahala areagotzea, hiztunak hitz eginez eta idatziz gauzatzen dituen ekintza komunikatiboak atzemateko, horiek oinarri eta ardatz hartuta eraiki dezagun geure jarduera didaktikoa.

Hemen, hasteko, ea asmatzen dugun aipatutako auzia ebazten.

Bada hizkuntzari buruzko liburu bat, han eta hemen aipatzen dena bibliografietan. Klasikoa, alegia. Baina beldur naiz honi ere ez ote dago-kion Koldo Mitxelena klasikoei buruz esan zuena: gehiago aipatzen dela irakurri baino. John L. Austinen *How to Do Things with Words* liburuaz ari naiz; gaztelaniaz, *Cómo hacer cosas con palabras* (Austin, 1982).

Eta Austinen liburu horretan, bada oinarri-oinarrizko kontzeptu bat, berak *performative utterance* terminoaz bataiatu zuena; gaztelaniaz, *expresión realizativa* itzuli dute; euskaraz, *esaldi gauzatzailea* esan dezakegu, batik bat *gauzatzailea* azpimarratuz.

Terminoak termino, kontzeptua interesatzen zaigu hemen. Austinek lau adibide erabili zituen argitzeko. Honela dakartza gaztelaniazko itzulpenak, testuingurua ere zehaztuz; hain da erabakigarria testuinguruarena (Austin, 1982: 46):

“Sí, juro (desempeñar el cargo con lealtad, honradez, etc.)”, expresado en el curso de la ceremonia de asunción de un cargo.

“Bautizo este barco *Queen Elizabeth*”, expresado al romper la botella de champaña contra la proa.

“Lego mi reloj a mi hermano”, como cláusula de un testamento.

“Te apuesto cien pesos a que mañana va a llover”.

Hemen, funtsezkoa da konturatzea zer egiten duten esaldi horiek, bakoitza berari dagokion testuinguruan eta egoera komunikatiboan behar bezala erabilita. Ez. Ez dute kontatzen zer gertatu den edo azaltzen gauzak nola diren edo agintzen zer egin behar den; hau da, ez dira kontaketa, azalpen edo preskripzio. Besterik egiten dute: *egin*. Egin egiten dute une horretantxe, eta hitz horiexen bidez egin ere, kasuan kasuko ekintza: zin egin, bataiatu, testamentuz utzi, apustu egin.

Hortxe dago gakoa eta giltza. Behin horretaz konturatuz gero, ez da zaila erabakitzen zein forma den zuzena eta egokia, dena delako lege, dekretu, agindu edo ebazpenetan: “xedaTU dut” ala “xedaTZEN dut”, “ebaTZI dut” ala “ebazTEN dut”... Azken batean, horixe dira idatzi horiek ere: testu gauzatzaileak, Austinek aipatutakoak bezalakoak.

Ez gara argitzen ari inolako misteriorik, nahiz eta batzuetan errazegi lerratzen garen okerbidera. Esaterako, Euskal Herriko Agintzaritzaren Aldizkariak, 2007ko urtarrilaren 25eko zenbakian, hamaika lege-idatzi dakartza horietako formularen bat erabiliz. Lau agindu dira, dekretu bat, bost ebazpen eta ediktu bat. Eta “xedaTU dut” (gaztelaniaz, “dispongo”) diote aginduek, dekretuak eta ebazpen batek; “ebaTZI dut” (gaztelaniaz, “resuelvo”) diote gainerako ebazpenek; eta “jakinaraZTEN dut” (gaztelaniaz, “hago saber”) dio ediktuak. Zeinek ote arrazoi: gehiengo ia erabatekoak ala gutxiengo urri horrek? Ehuneko 9ak ala ehuneko 91k?

Egia da eguneroko bizitzan ez ditugula maiz erabiltzen horrelako esaldiak: egoera jakinetan besterik ez. Baina gutako inori ez zaio arrotza egingo, noski, “hitz emaTEN dizut” bezalako esaldi gauzatzailea. Bestalde, norbaiti zerbait ematean, ez al diogu inoiz esan “hau zuretzat emaTEN dizut”?

Elizan-eta, ohikoagoak dira esaldi gauzatzaileak. Apaizak, esaterako, formula hau erabili ohi du norbait bataiatzean:

Nik bataiaTZEN zaitut, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Aitortzako sakramentuan, berriz:

Nik barkaTZEN dizkizut bekatuak, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

Ezkontzan, aldiz, ezkongaiak dute hitz gauzatzailea:

Nik,-k, zu, ..., harTZEN zaitut emaztetzat.

Nik,-k, zu, ..., harTZEN zaitut senartzat.

Horiek horrela, argi dago zein diren forma zuzen eta egokiak: “xedaTZEN dut”, “ebazTEN dut” eta “jakinaraZTEN dut”. Austinen adibideetako aditzek ere adizki ez burutuak eskatzen dituzte: “zin egiTEN dut”, “bataiaTZEN dut”, “uzTEN diot” eta “jokaTZEN dut”. Beraz, oraingoan behintzat, gutxiengo urriak arrazoi.

Egia da “xedaTU dut”, “ebaTZI dut” eta “jakinaraZI dut” ere zuzenak direla gramatikaren aldetik, baina –hemen dago funtsaren funtsa– bestelako ekintza komunikatiboak gauzatzen dituzte. Hala, “ebaTZI dut” erabiliz, esaterako, lehen ebatzi dudala adierazten dut, baina ez une unetan ebazten ari naizela. Eta, hain zuzen, lege-idatzi horiek bigarren zentzu hori dute. Horixe adierazten dute gaztelaniazko “dispongo”, “resuelvo” eta “hago saber” formek ere; eta baita Austinen adibideetako “juro”, “bautizo”, “lego” eta “te apuesto” horiek ere.

Horrek guztiak, besteak beste, agindu bat, 1993ko apirilaren 6koa, berrikustera garamatza: hain zuzen, Lege Egitasmoak, Dekretuak, Aginduak eta Erabakiak lantzeko jokabideak arautzen dituen (EHAA: 1993.04.19). Honela baitio, bigarren jokabideak, I. zatian, 3b puntuan:

Agindu eta Erabakietan, «XEDATU DUT» erabiliko da, xedapenak arau indarra baldin badu edo orokortasundun xedapena baldin bada edo «ERABAKI DUT», xedapenak ekintza administratibo maila izan dezanean. Xedapena organu batek baino gehiagok batera ematea gerta dadinean, «XEDATU DUGU» edo «ERABAKI DUGU» erabili ahal izango da, xedapenak izan dezan izakera juridikoaren arabera.

Eta, orain artekoaren arabera, XEDATZEN eta ERABAKITZEN behar dute. Gaztelaniazkoak, ordea, ez du aldaketaren beharrik.

En las Ordenes y Resoluciones se dirá «DISPONGO» si son normas reglamentarias o disposiciones de carácter general o «RESUELVO» si son actos administrativos. Asimismo, cuando se dicten conjuntamente por varios órganos podrá decirse «DISPONEMOS» o «RESOLVEMOS», en función de su naturaleza jurídica.

Baina ez gaitzen horretara muga. Izan ere, behin formarena ebatzita, merezi du gogoratzea zer garapen izan duen Austinen lanak, Searleren ekarpena lehenengo dela (Searle: 1969; speech-acts: actos de habla, hizketako egintzak); funtsezkoa baita euskara-irakasleontzat. Garapen hori baliatu genuen, esaterako, zenbait euskaltegitako kurrikulu-proiektua bideratzeko; eta horixe ari gara baliatzen, une honetantxe, euskalduntzearen laugarren maila diseinatu, osatu eta elikatzeke ere, *ekintza komunikatibo* oinarri eta giltzarri (Elosegi, Esnal, 2004: 25-27).

Izan ere, azken batean, egitea da hitz egitea; edo, bestela esanda, ekintza komunikatiboak gauzatzea. Eta, ondorioz, ekintza komunikatiboak gau-

zatzen ikastea da hizkuntza bat ikastea. Eta ekintza komunikatibo bakoitzak bere gramatika du.

Ekintzen gramatikari begira, urrats egokiak eman zituen, esaterako, Euskaltzaindiaren Gramatika batzordeak, besteak beste, EGLU II.ean euskal aditza aztertu zuenean, adizki jokatuaren erabilera ere landuz (Euskaltzaindia: Gramatika batzordea, 1987: 397-434). Baina, orain ezburutua [-T(Z)EN] aztertu eta honen balio nozionalak atzematean, ez bide zuten atzeman artikulua labur honetan landutako balioa. Hala ere, urratua dugu bidea. Etsi gabe egin beharko aurrera.

Bibliografia

Austin, J. L. 1982. *Cómo hacer cosas con palabras*. Barcelona: Paidós Ibérica.

Elosegi, L., Esnal, P. 2004. *Euskaltegi-kurrikuluak egiteko jardunbide bat*, in Zutabe, 57 (ale monografikoa).

Euskaltzaindia: Gramatika batzordea 1987. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak – II*, Bilbo, Euskaltzaindia.

Searle, J. R. 1969. *Speech-Acts. An Essay in the Philosophy of Language*. Cambridge University Presse. [Gaztelaniaz: *Actos de habla*. Madrid: Ediciones Cátedra, 1990].